

# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 231. zkia. 2015eko otsaila

**Martxoan,  
euskararekin topa!**





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutensea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Gazte Asanblada

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Pello Mugarza,  
Valentin Mugarza,  
eta Gazte Asanblada .

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti,  
Ibaia Azagirre,  
Kaltxango AEK,  
Joaquin Muñoz,  
Antton Izagirre,  
Nestor Cordon,  
Axier Alvarez,  
Leire Elustondo,  
Estibalitz González,  
Valentin Mugarza,  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

## AZKONARRA tejón *Meles meles*

Potin-potina eta ibilera narrasekoa, hanka motz-motzak ditu, baina inon ere ez lurra perforatuz habiak egiteko apatx sendokote horiek besteko makina-zulatzailerik! Negua ezkutuan ematen du eta horretarako gordeleku sakon eta korapilatsuak, benetako labirintoak egiten ditu basoan. Gautxoria eta sustakina; gaitza baino gaitzagoa ikusteko, baina inoiz aukerarik izan ezker, laster emango dio ihesari. Landara ugari jaten duen arren, artotzetan egiten du kalterik handiena, artoa burura doanean, berdetan gustatzen zaio-

lako jatea. Bai bera zein artook ugaria-goak ziren sasoieta, harrapatzea zen gauza: kutxa bat ipintzen zitzaioan solo erdian, barrura sartu zedin. Harrapatzaileak

gero, makila biri lotuta, etxerik-etxe ibiltzen zuen, dirua batuaz. Gaur egun, lagunok, txakur handirik ere ez haren lepotik!



## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK...4	BOTERONTOAN ..... 16
Madiagne Diagne (Senegal)	Nora Mateos
ELKARRIZKETA .....5-7	KIROLZALE ..... 17
Jesika Martínez-Alcocer, artista	Judo Sonkei
MALLABIAN ZER? .....8-9	IRITZIA ..... 18
Iñigo Pradera Belar	"Gazteak herriaren zimendu"
ERMUAN ZER? ..... 10	SALEROSKETAK ..... 19
Joaquin Muñoz, disenatzaile grafikoa	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN ..... 11	ANTZINAKOAK.....20
Berbetan jardunaldiak.	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA ..... 12-13	KALEKO INKESTA .....21
19. Korrika	Zer iruditzen zaizkizu komun publiko berriak?
ERMUAN ZER? ..... 14-15	AGENDA .....22
Sagardo Eguna	Martxoko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Madiagne Diagne

Senegalen ez da euskaraz hitz egiten, baina Madiagne entzunda, Afrikako mendebaldeko herri horretara hurbildu beharko ginatke hori egia ote den ikustera. Hitzaldiak eta guzti ematen ditu euskaraz!

**-Lougakoa zara, Senegal iparraldekoa. Nolakoa da hura? Nolakoa zen zure bizimodua han?**

Nahiko lehorra da hura. Nekazaritza eta merkataritza dira arlo ekonomiko nagusienak, izan ere, guretzat itsasoa nahiko urrun dago. Nire aita garraiolaria zen (orain jubilatuta dago) eta nire ama etxeoandrea.

**-Asko zarete familian?**

Nire etxean zazpi anai-arreba gara: bost neska eta bi mutil. Nahiko handia!

**-Zergatik erabaki zenuen Senegal utzi eta hona etortzea?**


Bizi-baldintzak hobetzea nuen helburu, pertsona guztiak bezala.

**-Familia han geratu zen edo denek egin zenuten bidaia?**

Ni bakarrik etorri nintzen, familia Senegalen geratu zen eta oraindik han daude.

**-Nolakoa izan zen bidea?**

Orain dela bost urte Senegaleetik Frantziara joan nintzen eta han denbora bat egin nuen. Frantziatik Madrilera mugitu nintzen gero eta urtebete egin nuen han. Eta azkenik, Madriletik Euskal Herrira



etorri nintzen eta lau urte daramatzat hemen.

**-Ermura etorri zinen zuzenean?**

Ez, hasiera batean Santurtzin bizi izan nintzen urtebetez. Gero bai, Ermura etorri nintzen orain dela hiru urte. Lana aurkitu nuen Ermuan eta horregatik etorri nintzen. Orain, Urnietan egiten dut lan, baina Ermuan bizitzen jarraitzen dut. Egunero joan eta etortzen naiz.

**-Europara heltzean aldaketa handia sumatu zenuen?**

Bai, oso handia. Dena ezberdina zen: toki, jendea, kultura... Nire herrialdean bero handia egiten du eta hona iristean hotz handia zegoen. Bestetik, nire herria nahiko lehorra da, urte osoan hiru hila-betetan bakarrik egiten baitu euria, eta harritu egin ninduen hemengo inguruneak, oso berdea baita. Urte osoan egiten du euria Euskal Herrian!

**-Eta jendearekin, zer moduz?**

Denetarik dago, mundu osoan bezala, baina hemen ondo tratatu naute. Lagun asko daukat hemen eta oso pozik nago eurekin. Nire lagun gehienak hemengoak dira, euskaldunak. Euskal Herriko kultura eta bizimodua ezagutzeko modurik onena da.

**-Euskaraz hitz egiten oso ondo ikasi duzu ba!**

Hasiera batean EPAn ikasten ibili nintzen urtebetez, baina gero utzi egin nuen. Hala ere, ikasitakoarekin praktikatu egin dut denboran eta nire kabuz hobetu dut maila. Orain dela aste batzuk Urnietan lana aurkitu nuen eta euskaraz jakitea beharrezkoa da, beraz, AEKra berriro joaten hasi naiz. Dena ulertzen dut, baina hitz egitea pixka bat kostatzen zait.

Ekhi Velar

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



Jesika Martinez-Alcocer, artista:

**“Sormen absolutuari egin diot aurre  
artista moduan, dena eskaini diot”**

Arte Ederretan lizentziatua eta Artearen Sormen eta Ikerkuntzan Masterra egin duen diziplina anitzeko artista da Jesika Martinez-Alcocer ermuarra. Bilbao Arte Fundazioan bekadun bezala aritu ostean, buruan bueltaka zeukan ideia garatu du azken hilabeteotan: Animal Culture. Arropa egiteari ekin dio eta pozik dago hartutako erabakiarekin. Bere produktuak ikusi edota erosi nahi izanez gero, [animalculture.blogspot.com.es](http://animalculture.blogspot.com.es) webgunean daude ikusgai eta... salgai!



**-Hastapenetik hasiko gara. Artista jaio zinen?**

Ez nuke jakingo esaten artista jaio nintzen edo ez, nik uste dut ezetz, baina umeez txikitzen euren inguruan dituzten dispozizioak oso garrantzitsua direla iruditzen zait. Ez bakarrik bakoitzak dituen berezko gaitasunak, baizik eta bere inguruak uzten dizkionak. Denborarekin artista egin naizela bai esan dezaket, hori ziur.

**-Arte diziplina anitzetan aritu izan zara. Batek bakarrik ez zaitu asetzen?**

Jaja, hori nire izaerarengatik dela uste dut. Erronkak atsegin ditut eta ez dakit Aries izateagatik burugorria naizen, baina menderatzen ez ditudan konfiantza sartzen naiz ondoren gertatu daitekeena ikusteko (serigrafian adibidez). Hori ondo dago asko ikasten duzulako, baina nolabaiteko presioa sentitzen duzu ez dakizulako hortik zer aterako den.

**-Nolakoa izaten da zure sortze prozesua? Beti berdin jarduten duzu?**

Ideien sormena ezberdina izaten da. Batzuetan, bat-batean sortzen den zerbait dago. Adibidez, etxean egon, marrazteko beharra sentitu eta hortik zerbait positiboa eta probetxugarria sortzen dut.



Beste batzuetan, aldez, zerbait (irudi, ipuin... batek) atentzioa eman eta horren gainean zerbait egitea bururatzen zait. Gero bai, behin ideia edukita, hori euskarrira eramateko lana bai da metodikoagoa. **-Zerk du eragin handiena zure lanetan? Zerbait ikazanez gero, behintzat.**

Fakultatean hasi nintzenetik egindako lan guztietan ezin izan dut nire bizi-erperientzia eta sortutako lana bereizi. Nigan eragina

duen edozer islatzen dut nire lanetan, ezin dut hori alboratu.

**-Urteak daramatzazu artearen munduan erakusketak, proiektuak... egiten. Atzera begirada egiterakoan, zure lanek eboluzioa izan dutela sumatzen duzu?**

Bakarkako lehen erakusketak Lobianon egin nuen oso gaztea nintzela eta ariketa soilak ziren lanak aurkeztu nituen, agian artistikoki indar asko ez zutenak. Lobianoko esperientzia horrek, adibidez, asko balio izan zidan, oso ariketa garrantzitsua izan zelako nire burua erakusketaren aurrean ikusi ahal izateko, prestaketa eta muntaia no-

la ebatzen nuen ikusteko, eta nire lana espazio batean osorik ikusi eta hortik ondorioak ateratzeko.

**-Nolakoa izan da zure artista bidea ordutik?**

Oso gogorra. Sortze prozesua atzean dagoena da eta publikoak ez du ikusten. Denbora eta diru inbertsio handia dago lanak aurrera eramateko. Artista moduan sormen absolutuari egin diot aurre, hau da, dena eskaini diot orain dela hamar urte hasi nintzenetik, ezeren truke. Artisten profesioa profesionalizatu gabe dago. Adibidez, kultur-etxe batean erakusketak bat antolatzen badugu, inork ez digu ezer ordaintzen. Gunea garbitzen due-

**“Nigan eragina duen edozer islatzen dut nire lanetan, ezin dut hori alboratu”**






**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

nak kobratzen du, baita margotu eta mantentzen duenak, zabaltzen duenak... artistak ez, aisialdi edo momentu kultural hori sortzen duena bera bada ere. Beka eta lehiaketetara aurkeztetik bizi gara, eta oso zaila da horrela bizitzea.

**-Zer da Animal Culture?**

Dendetara nindoanean beti kostatu izan zait gustuko arropa aurkitzea eta beti pentsatu izan dut arropa egitea gustatuko litzaidakeela, niretzat gutxienez. Bilbao Arte Funda-

zioan hasia zoragarria izan zen, lehendabiziko aldiz errekursoekin sortzeko aukera izan nuelako, eta serigrafiatzen ikasi nuen han. Gainera beste kontu on bat du Fundazioak: beste artista batzuekin hartu emana daukazula, eta asko ikasten da horrela. Teknika grafikoen tailerlean artista asko batu ginen eta horietako askok bere arropa marka zeukan, hainbat urtetako esperientziarekin. Nik metakrilatoan serigrafiatzen nuen bitartean, euren kamisetak nola serigra-

## “Artistak beka eta lehiaketetara aurkeztetik bizi gara, eta horrela oso zaila da”

fiatzen zituzten ikusten nuen eta argi neukan behin beka amaituta, horretan jardungo nuela. Eta horrela izan da. Beteko ninduen zerbait egiteko denbora neukan eta ideiarekin aurrera egin dut.

**-Artetik haratago dagoen zerbait da kamisetak sortzearena.**

Bai, marketinga, brandinga eta ezagutzen ez nituen gauzak ikasi behar izan ditut, eta hainbat ikastaro egin. Enpresaria izatea oso zaila dela ikasi dut, jaja.

**-Nolako harrera izan dute produktuek?**

Azaroan ikusi zuen argia Animal Culturek eta harrera positiboa izan duela esango nuke. Hala ere, oraindik nire familia eta ingurukoek bakarrik ezagutzen dute, gauza bikaina dena (euren barik hau ez litzatekeelako posible izango, ez baitut publizitatean inbertsiorik egin), baina muga hori gainditu eta produktua erosi dezakeen publiko potentzialera iritsi arte, ezin izango nuke ondo esan nolako harrera duen Animal Culturek. Jendeak gustuko duela esan dit eta ezagutzen ez nauten batzuek ere erosi dituzte hainbat gauza. Oso pozgarria da.

Ekhi Velar



**AMAIA HARATEGIA**



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**es**  
**egolek**  
*electrizitatea  
iluminazioa*

M. de Valdespina 14 · ERMUA  
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

*Komunitateak*

**San Pelayo**

*Aholkularitza  
juridikoa*

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com  
**arral**

Telf.: 943 17 60 75  
**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- Nitida

**arral@arral97.com** - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**OUTUMURO**  
**Kafetegia**

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

*Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*



Iñigo Pradera Belar, 20 urte:

## “Helburue ahalik eta goren heltzie da, ahalegin guztixek egingo dodaz horretako”

Athletickeko hirugarren taldie dan Basoniako jokalarixe. Kirolen goi mailako ziklue ikesitte, orain Haur hezkuntzako ziklue etaratzen be badabil.

**- Ze kirol praktikau izen dozuz?**

Txikitten ziklismuen, pelotan eta futbolien ibiltzen nintzen. Ziklismuen pare bat urte ibilli nintzen eta 9 urte ingurukin itxi egin biher izen neban, larregikue zan eta. Pelotie 6 urtekin edo hasi eta 17 urte ingurukin itxi neban, pena askokin.

**- Futbolien noztik jokatzen dozu?**

8 urte ingurukin hasi nintzen lagunekin jokatzen Mallebiko taldien.

**- Zein ekipotan ibili zara eta zenbat denboralditten?**

Mallabiko ekipuen hasi nintzen eta gero Athletickeko fundaziño baten egon nintzen urte baten. Horren ostien Ermuko taldien egon nintzen bi urte, eta infantilletan Eibarrera jun nintzen, bertan sei urte egon ostien, zarpigarrena Zamudiora juen nintzen zedidute.

**- Momentu honetan zein taldetan jokatzen dozu?**

Oin Basconian nabil jokatzen, Athletickeko 3. taldien.

**- Zer suposatzen dau talde honetan jokatziek?**

Athletickeko filial baten egotiek motibaziño itzela emoten dotzu, oso pozik nau bertan egotiarren.

**- Zein postutan aurkitzen zara erosuen?**

Txikittetik aurrelari jokatu izen dot eta bertan gustorago, ez neuke postue aldatuko.

**- Zer helburu daukezuz?**

Helburue ahalik eta goren heltzie da, ahalegin guztixek egingo dodaz horretako.

**- Erreza da kirola ikasketekin uztartzie?**

Nik bahintzet ez dauket arazorik, gauzak apur bat ondo eruen ezkerro errez eruen ahal dozuz ikasketak.

**- Zenbat entrenamentu egingiten dozuz astien?**

Astien 4 entrenamentu egingiten doguz, eta domekan jokatu ezkerro 5, Lezaman entrenatzen dogu beti eta jokatu Basaurin.

**- Bizi estilue be zaindu biher da kirolien aritzeko...**

Klaru dau edozelan ezin zaiela ibilli, apur bat zaindu egin biher da, jateko orduen be kontue euki biher dozu, eta gorputzek deskantsue biher dauenien, ba hoixe emon biher jako. Nibela gora doien eiñien gehixa zaindu biher da.

**- Futbolaz gain, beste kiroliek praktikatzen dozu?**

Ezdot beste kiroliek praktikatzen, bañe mendire juetie, bixikletie... asko gustatzen jataz.



**- Praderatarrak pelota mundukuek izen die beti... zer diñotzue etxien?**

Pelotie futbolagaittik itxi nebanien dezepziño apur bat eruen eben, bañe asko lagundu deustie familixako danok, hartuteko erabakixaz aurrera egin gendun.

**- Futbola ikusten edo praktikatzen disfrutatzen dozu gehixa?**

Bixetan pasatzen dot edarto. Partidu on bat jokatzen zabizela eta bertan momentuen daukezun sentsasiñue itzela da, bañe Championskeko edo Liga-ko partidu on bat ikustie be asko gustatzen jata.

**- Zein jokalaria miresten dozu?**

Oin momentuen Aduriz dabil edarto, eta bera dauket erreferentzi moduen, bañe ezagutu dittuten asko dagoz: Ronaldo, Henry, Van Nistelrooy...

**- Eta zein entrenatzaile?**

Guardiolak futbolien egin dabena ez dot uste iñok egin dabenenik, bera da onena niretzako.

**- Zelan ikusten dozu zure burue hemendik eta urte batzuetara?**

Eztakit non egongo nazen, bañe nik ahalegin guztixek egingo dodaz dana ondo juen daixen.

**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

**943 174 952**  
(estartetan itzita)

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA  
ETXERA

**Oh la lá!**

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefona: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com



## MALLABIKO PISU NEURTUKO ASTO PROBEN VIII. SARIA

### Martxoak 6, ostirala, 21:00etan

Maïora.  
Zengotitagane.  
Lobene.  
Janire Alegria.

### Martxoak 7, larunbata, 21:00etan

Irazola.  
Ugalde.  
Karmelo.  
Taberna Zaharra.

### Martxoak 8, igandea, 18:00etan

Santxibar.  
Miren Olabarria.  
Alegria.  
Egia.

## BIHARKO IZARRAK XII. TXAPELKETIE MARTXAN

Otsaillan 26xen hasiko da urtero lez, Mallabixen antolatu eta jokatzeko dan pelotari gaztien txapelketa hau. Aurten, 24 pelotarik parte hartuko dabe, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Errioxatik etorritzekuek. Herriko Aitor Elordik txapelketiai hasierie

emonda, eta igezko esperientziakiakin, aurtent txapelketa politte egitteko aukerie eukiko dau. Honaz gain, aipatzekuek die baitte Dario ezkaraitarra eta Agirre burlatatarra. Gazte bi honek Aspe eta Asegarcekin debutatzeko hurrenguek izengo die, eta txapelketa hau izen leike horretarako azken urratsa. Betiko lez, par-

tiduek eguenetan gabeko 9.15etan jokatu die. Finalak ekaiñeko lehen-go barikuen izengo die.

## KONPOST GUNIEK URTE BETE

Urte bete da Udalak konpostajie sustatu eta herrixen lau konpost gune jarri zittule; Proiektu honetaz eta lortutakoaz Udalak balorazino ona egitten dau. Guztire 102 familiak parte hartzen dabe ekintza honetan. Aurrera begire, mallabarrenako gunie bikoizteko asmue dau, espazio horrek daukezan erabil-tzaillientzat txiki geratu dalako. Konpostadorak arin betetzen die eta ondorioz udal langilliek berauek hustu eta han-bren deukien gunera eruen biher dabe mate-rixa organikuek bere prozesue egin daixen konposta lortu arte. Honetaz gain, Udalak azaldu dau Urkiola Landa Garapen Elkartiaz hitzarmen bat sinatu barri dabela. Hitzarmen honi esker, 6 hilabetez langile bat kontratatu da Mallabi eta Berrizko

konpostaz arduratu eta Durangaldeko GR ibilbidiek garbitzeko.

## ELIZAKO LOKALE- KO LANAK

Sasoi baten udaletxie eta beranduago liburute-gixe izendako lokalien obrak hasi zien urte hasieran. Urre S.A. enpresa da obren arduradun, izen be, bera da proiektu eta prezio onena aurkeztu ebana. Enpresa honi 112.312,10? esleitu jakoz lokala guztiz egokitu eta akzesibliau egitteko igogaillue jartzeko. Lokala bi zatituen banatu ahalko da, ekin-tzen arabera espazio aukera ezberdiñek euki ahal izeteko. Komunek barriz, sarreran jungo die, momentu puntuale-tan berauek komun publiko bihurtzeko aukerak be aztertzen bada-biz. Erabilerari dagokionez, elkarte, gazte eta herritarren eskaerei erantzuteko zabalik egongo da. Lanok bi hilebete barru amaittute egotie espero da.!

Igone Amesti eta  
Ibaia Azagirre

hamburguesería  
**TITANIC**



*Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**Proba-Leku**  
*Neapaindegia - Estetika*

**Probaleku 3, 1A**  
**Tel. 943 17 05 42**

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

Joaquin Muñoz, disenatzaile grafikoa:

## “Sardinek ere inauterietan disfrutatzen eskubidea daukate”

“Dando la lata” izeneko kartelarekin irabazi du Joaquin Muñozek Irungo inauterietako kartel lehiaketa. Disenatzaile grafikoa profesioz, Irunen bizi den ermuar honek parte hartzen duen lehen lehiaketan sari potoloa irabaztea lortu du.

- Zer pentsatu zenuen kartel saritua zurea zela jakin zenuenean?

Sinistea kostatu zitzaidan hasieran, gidatzen nindoan eta ez nuen gehiagorako astirik izan. Beranduago deitzeko esan nien. Egia esan, ez nuen irabaztea espero. Kartela egin eta entregatu ostean, kontua nahiko alboratuta utzi nuen. Lehiaketa ez neukan buruan eta ez nion buelta askorik eman irabazteko aukerari. Beraz, pentsa, ezusteko polita izan zen!

- Nola inspiratu zinen kartela egiteko?

Hainbat gauza nituen buruan. Aukera batzuk ezeztatu eta sardinei protagonismoa ematea erabaki nuen. Beti inauterien amaieran modu tristean

agertzen da sardina eta, behingoz, jai kutsua eman nahi nion, disfruta zezala besteok disfrutatzen dugun moduan erre baino lehen.

- Sardinaren figura errebindikatu duzu

Paper puntuala jokatzeko du sardinak inauterietan, beti amaieran. Horrela, daukan rol tristeagatik, inauterietako kartel gutxitan agertu izan ohi da. Nik konfetiak jarri nahi izan dizkiot, gozatzeko eskubidea daukalako.

- Aldea dago Irun eta Ermuko inauterien artean?

Bai, zertxobait. Irungoak handiagoak dira zentzu batean: desfileak egiten dira, jendeak koreografiak prestatzen ditu, eta abar. Baina dibertitzeko orduan nik uste dut bietan berdina dela.



- Gustatzen zaizu inauterietan mozorrotu eta disfrutatzea?

Bai, baina adinean gora egin ahala gero eta gehiago kostatzen zait. Hala ere, gorputzak dibertitzeko gogoia izaten du inauterietan.

- Lehiaketa honetan izan duzun arrakastaren ostean, gehiagotan parte hartzeko gogoia duzu?

Disenatzaile grafikoa naiz eta beti izan dut buruan horrelako lehiaketetan parte hartzea. Orain, hori irabazi ostean, gehiagotan saiatuko naiz, ilusioa badaukat behintzat. Gainera, dirutxo bat irabazteko aukera ematen dizu. Ez dago txarto!

Ekhi Velar



**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

Iberikoetan espezialistak

*Mayte*

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MUGA**



**KILOGRAMAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA



## Berbetan jardunaldien XVI. edizioa martxoan

Hiru ekitaldi nagusi antolatuta dituzte aurten Berbetan jardunaldien XVI. edizioetarako. Euskararen inguruko gogoeta egin eta hizkuntza sustatzeko bultzatu zen ekimena da Berbetan eta, urtero bezala, martxoan egingo da. Paula Kasares, Mikel Markez eta Lorea Agirre (gonbidatu berezi batekin) izango dira aurtengo edizioan parte hartuko dutenak.

Martxoaren 4ean egingo da lehen ekitaldia. Bertan, Paula Kasares Euskal Filologia eta Gizarte eta Kultura Antropologoak 'Euskara, entra un idioma en casa' iritzia eskainiko du Lobianon 14:30ean. Kasares Baztango euskara teknikaria da eta baita Nafarroako Unibertsitate Publiko irakaslea ere. Ermuan eskainiko duen hitzaldia guraso ez euskaldunei dago zuzendua.


Berbetaneko bigarren ekitaldia Mikel Markosen esku dator. Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena helburu dituen proiektua aurkeztuko du Lobianon 19:00etan. Euskal Birusak aurkeztuko du publiko orori zuzenduta dagoen ekitaldi hori. Jardunaldiekin amaitzeko, Lorea Agirre oraindik argitu bako gonbidatu berezi batekin etorriko da martxoaren 17an. Agirre eta gonbidatuak 'Atzera begira aurrera egiteko' hitzaldia eskainiko dute Lobianon 19:00etan. Euskararen normalizazioaren alde orain arte izan eta egin dena baloratu eta egiteko dagoena irudikatuko dute bertan. Kaltxango AEK, Udal Euskaltegia, Eskolabarri, Ongarai eta Anaitasuna ikastola ibili dira Berbetan jardunaldien antolakuntzan.



Mikel Markez martxoaren 11an etorriko da

## Laburbira 2015 martxoaren 26an Antzokian

Laburbira, film laburren zirkuitua, hamabigarren urtez dator euskarazko zinemagintzaren lanak eskaintzera. Martxoaren 26an egongo dira ikusgai Ermuko Antzokian aurtengo edizioko zortzi lanak. Saioa 20:30ean hasiko da eta 85 minutuko luzapena izango du. Aipatzekoa da, gainera, iaz Ermuko Gazte Asanbladak antolatutako film laburren lehiaketaren lehen sariduna ere eskainiko dela, Eider Gisasola eta Hiart Redondoren 'Kometak' lana.



Hauek izango dira Laburbira 2015ean ikusgai egongo diren film laburrak: 'Hubert le Blonen azken hegaldia' (Koldo Almandoz), 'Eid Land' (Igone Arreitunandia), 'Aitona Mantagorria' (Kepa Errasti), 'Zela Trovke' (Asier Altuna), 'Arconada' (Asier Urbieto), 'Don Miguel' (Kote Camacho), 'Zaunk' (Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Vera) eta 'Zarautzen utzi zuen' (Aitor Arregi).

## HARTZA PROTAGONISTA INAUTERIETAN

Ermuan kalez-kale ibili zen Hartza otsailaren 13an. Jendea, izututa baino, pozik eta alai zebilen haren inguruan. Ez zegoen izurako betarik, Hartza Eguna ospatzen zen. Ehunka ume, gazte eta nagusi ibili zen herriko kaleetan zehar Hartza lotuta eraman eta bere sasoiari Txindurrik egindako koplak abesten. Eguraldiaren iragarpena oso ona ez bazen ere, ohiturak euriak baino indar handiagoa izan zuen eta jendetza handia irten zen kalera. Azkenean, meteorologia ez zen hain eskasa izan. Kalejira amaitutakoan, Hartza kobazulora bueltatu zen berriro eta herria bere zain geratuko da hurrengo Hartza Eguna iritsi arte.



**Sagarra**  
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eralkina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

# Urepeletik Bilbora, euskara pausoz pauso

**Euskal Herriko errepide, kale eta bideak euskaraz beteko dira martxoaren 19tik 29ra. Korrikak Urepel eta Bilbo lotuko ditu aurten euskaraz egindako bidean, gure hizkuntzak bi urtean behin egiten duen ibilaldi erraldoian. Luzatu hankak, berotu ahoa eta zabaldu euskara. Badator Korrika.**

‘Euskahaldun’ lelopean iritsiko zaigu Korrika 19. aldiz Euskal Herriko bideetara. Martxoaren 19an Urepelen hasita, 11 egunez etengabeko ibilaldiari ekingo diote milaka lagunek euskararen aldeko lasterketa erraldoian hilaren 29an Bilbora iritsi arte. Helmugara iritsi baino lehen, Mallabia eta Ermuak ere lekukoa hartuko dute. Martxoaren 23an iritsiko da gure txanda.

Korrika Zaldibartik 16:15ean helduko da Mallabira, Areitio aldetik. Handik herrira joko dute korri-

kalariek eta, herria zeharkatu ostean, Ermurako bidea hartuko dute. Aurreikuspenen arabera, 16:26ean sartuko da Korrika Ermuan. Erdialdean buelta bat eman eta herria euskarazko jai giroan murgildu ostean, Eibarrerantz joko du Korrikaren lekukoa.

11 minutuko kontua izango bada ere, atzetik lan handia egin du Korrika Batzordeak eta bestelako laguntzaileek Korrikak Mallabia eta Ermuan bidea ederra izan dezan. Bai Ermuan, bai Mallabian hain-



Mallabiko Korrika Batzordea

bat bilera egin dituzte Korrika 19ren nondik-norakoa aztertu eta herri bietakoa Korrika Kulturala zehazteko.

Ohikoa denez, edizio bakoitzean abesti berria prestatu dute antolatzaileek Korrika datorrela ospatzeko. Aurtengo kantak, ‘Denok korrikara’, Oskorriren abesti ezagun baten bertsioa egin dute Mikel Laboaren letrarekin. Kanta entzutean, ahotsa ezaguna egingo zaie Kaltxango AEK Euskaltegian dabiltzanei, izan ere, bertako AEKide Amaia Ezenarro Etxebarriarrak abesten du 19. Korrikako kanta hori. Gainera, abestiaren bideoklipetan Ermua eta Mallabiko jendea ikus daiteke.

Euskara sustatu, gure hizkuntza suspertu eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du

helburu Korrikak. 1980an lehendabizi antolatu zenetik, euskararen alde egiten den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuena da. Hala ere, Korrika ez da ezer korrikalaririk gabe, ezta inguruan animoak ematen eta bere helburua lortzen laguntzen dituen pertsona horiek gabe. Horretarako, hainbat bide daude laguntza hori eman ahal izateko Korrikaren bitartez: Korrika laguntzaile bihurtu (12 euro eta, trukean, euskal-kari-pina, Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izateko balio duen txartela eta komertzioen katalogoa) edota kilometroak erosi. Interesa izanez gero, Kaltxango AEK Euskaltegira jo, ermua@korrika.org helbidera idatzi edo www.korrika.eus webgunea bisitatu informazio gehiago bila.



Ermuko Korrika Batzordea

**DESCUBRE-TÉ**  
Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia  
943 03 15 81 · descubrenew@hotmail.com  
www.teteriadescubre-te.com

**Bobby** Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20  
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
bobby.todoparatumascota@gmail.com



## ERMUA

**Otsailaren 27an**, Antzerkia, "Erdi Bana", 22:15ean, Antzokian. *Ermuko Udala*.  
**Otsailaren 28an**, Haur-antzerkia, "Aladdin". Gorakada taldea, arratsaldeko 17:00etan, Antzokian. *Ermuko Udala*.  
**Martxoaren 4an**, Hitzaldia: Paula Kasares, "Euskara, entra un idioma nuevo en casa", 14:30ean, Lobianon, Gaztelera. *Berbetan jardunaldiak*.  
**Martxoaren 6an**, Nusbuk, *Ermuko gazte feministen taldeak antolatutako ekitaldia*.  
**Martxoaren 7an**, Sagardotegia, 20:00etan Bus geltokian (Lex parean). *Txindurri, Kalkango Aek eta Berbalagun*.  
**Martxoaren 11n**, Hitzaldi musikatua, Baga biga biga, Mikel Markez, 19:00etan, Lobianon. *Berbetan jardunaldiak*.  
**Martxoaren 12an**, Korrika aurkezpen soziala, 18:00etan, Ermuko plazan. 18:30ean Musika Ikuskizuna., Alboka Musika Eskola eta Amaia Ezenarro (Korrika 19 kantaren abeslaria). 20:00etan, Korrika erakusketak eta pintxoak Infreñu. 21:00etan Berbafaria. *Ermuko Korrika Batzordea*.  
**Martxoaren 13an**, Kontzertua, "Issuna" eta "Hardflip". Gaucko 22:00etan Eskilarapekon. *Eskilarapeko Atenoa*.  
**Martxoaren 14an**, Xake txapelketa, Ermuko plazan. 11:00etan Ermua-Eibar norgehiagoka. *Ermuko Xake taldea*.  
**Martxoaren 17an**, Hitzaldia, Lorea Agirre eta gonbidatu berezia, 19:00etan Lobianon. *Berbetan jardunaldiak*.  
**Martxoaren 18an**, Kontzertua, "Kokein akustikoa", 22:00etan, Infreñu. *Infreñu taberna*.  
**Martxoaren 21ean**, "Sagardo Eguna", egun guztian zehar, Ermuko Plazan. *Ermuko Gazte Asanblada eta Euskal Birusa*.

**Martxoaren 23an**, Korrika txikia 15:15ean. *Anaitasuna, Eskolabarri, Ongarai eta Sallabente ikastetxeak. Antzokietan*. 18:00etan Txokolatada. *Alargunen Elkarte*. 18:15- 20:15 Erromeria Luhartz taldearekin, plazan. *Udal Euskara Saila*. 20:30etik aurrera, Afari autogestionatua, Merkatu Plazan.  
**Martxoaren 26an**, Laburbira, film laburrak, 20:30ean, Antzokian. *Euskal Birusa*.  
**Martxoaren 27an**, Bertso-Trama, 22:00etan Infreñu tabernan. *Infreñu*.  
**Martxoaren 28an**, Haur eta Guraso tailerra. 10:00etan Lobianon. *Antzokietan eta Berbalagun*. Antzerkia, "Konpota", Eneritz Artetxe, 20:00etan Lobianon. *Ermuko Emakumearen Udal Kontseilua*.

## MALLABIA

**Martxoaren 13an**, Korrika aurkezpen soziala, 19:00etan Zurrutokin. Luntxa eta "Gu euskahaldunak gara" dokumentala. *Mallabiko Korrika Batzordea*.  
**Martxoaren 20an**, Kontzertua, "Daltondarrak", Herriko Tabernan. *Txaparrada Kultur Elkarte*.  
**Martxoaren 21ean**, Bertso Desafio, Gabiria-Markina, 22:00etan, Herriko Elkarte. *Gazte Taldea*.  
**Martxoaren 23a**, Korrika eguna. 15:00etan Korrika txikia, *Mallabiko eskola*. 17:00etan Txitxiburduntzi, *Guraso Ekarte*. 18:00ean Ipuinkontalaria. *Gazte Taldea*.  
**Martxoaren 27an**, Antzerkia, "Oroitzenak", Joseba Usobiaga "Tximista". *Mallabiko Udala*.

æk 19.korrika  
**EUSKAHALDUNI**  
 Urepetetik Bilbora • 2015eko martxoaren 19tik 29ra



rraren parte hartzearekin. Berea da antzezlaneko paper nagusia eta aktore moduan arrakastaren bidean jarraitzen duela erakusten du horrela Losadak.

Ermua eta Mallabian ere hainbat ekitaldi antolatatu ditu Korrika Batzordeak Korrika Kulturalaren inguruan. Agenda beteta dator eta alboko taulan daude zehaztuta egingo diren ekitaldiak.

Ekhi Velar

**Korrika Kulturala**

Korrikaren inguruko mugimendua, hala ere, ez da lasterketara mugatzen. Euskal kultura eta euskara gizartearen esparru guz-

tietara eramateko asmoan antolatzen da Korrika Kulturala. Horren bitartez euskarazko arte eszenikoak bultzatu, euskal sortzaile berriei bidea egin eta jendaurrean aurkez-

daitezkeen lanak sortzen laguntzea da helburua.

Korrika Kulturala abian da jada eta, programa nazionalaren barruan, Fausto antzezlanaren egongo da ikusgai, Mikel Losada ermua-

# Uguro

## aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

# Sagardoa eta euskara, festarako konbinazioa

Martxoaren 21ean Ermuak txotx egingo du. Botilak goian, edalontziak behean eta sagardoak egin dezala bere bidea. “Belaunaldi berriko II. Sagardo Eguna” ospatuko da herrian. Horrela definitu dute antolatzaileek behintzat. Iazko erronkari eutsi eta apustua bikoiztu dute aurten: goiz eta arratsaldean egongo da sagardo festa Orbe Kardinalaren plazan. Egun osoko euskal festa.

Aspaldi egiten bazen ere, Gazte Asanbladak iaz berreskuratu zuen Sagardo Egunaren ohitura Ermuan. Ilusio handiz ekin zioten eta jendeak ederki erantzun zuen. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jardunaldi arrakastatsua izan zen. Aurten, beraz, errepikatzea ia derrigorrezkoa

zen. Jendea zain zegoen eta antolatzaileek ez dute hutsik egin.

II. edizio honetan, omen-duk izango direnak egingo dute Sagardo Egunari hasiera emango dion ohorezko txotxa. Euskal Birusa eta Sagardo Egunean bertan sukaldari bezala aritzen diren Santos Vega, Elias Uriarte eta M<sup>a</sup> Jose Airas izango dira omenaldia jaso eta egun handiari hasiera emango diotenak. 12:00etan izango da hori. Euskararen alde egindako lana eskertu nahi diete horrela antolatzaileek, “eta, gainera, 200 pertsonentzako bazkaria egitea ez da erreza!”. Ondoren, 12:30etatik aurrera, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Asturiaseko 17 sagardotegi ekoizleren sagardoak egon-

**ERMUKO**  
**II. SAGARDO EGUNA**  
**MARTXOAK 21**  
**ORBE KARDINALAREN PLAZAN**

*Kendu egarria eta hankaz gora jarri herria!*

**EGITARAILA**  
12:00  
TXOTXI!  
12:30 - 14:30  
SAGARDO GÜNEA ZABALIK  
18:30 - amaitu arte  
SAGARDO GÜNEA ZABALIK  
19:30  
TRIKIPOTEOA  
23:00  
ERROMERIA  
Alai taldearen eskutik  
*Txosna egun osoan zehar*

**SAGARDOTEGIAK**  
ANOTA  
HARATEGIAK OKINDEGIAK  
Bolinza, Miguel, Asier, Amaya, Mayra, Maia por Menos, Danotz, Peña, Ogiherri, Arriandi, el Gusto es Mío, Beto Osa  
TABERNAS  
Scorpio, Hanigan's, Lurpe, Torrekua, Sagarra, Secretos, Yemi, Karikato, Jai, Zabal, Caperos, Xagau, Fierga, Infrenu, Ertz, Moloko, Txalaparta, Dakota, Songes, Titania, DQ Berria

**EKARRI ZUEN EUSKAL JANTZIARI!!**

Laguntzaileak:

Antolatzailea:

go dira dastagai bertara hurbiltzen direnentzat. 14:30ean lehenengo txanda amaitu eta 18:30ean berriro ekingo dio festak Sagardo Egunean edaria amaitu arte. Gero, gainera, erromeria egongo da Ermuko Alai taldearen eskutik.

Sagardoaz gain, txistorra eta txorizo pintxoak ere egongo dira eskuragai, edariari laguntzeko. Baina,

zer egin sagardo eta pintxoek gozatzeko? Antolatzaileek 800 edalontzi prestatu dituzte eta festan parte hartzeko modu bi daude. Batetik, 5 euro ordainduta, edalontzia jaso eta nahi beste sagardo edan daiteke. Eta bestetik, 6 euro ordainduz gero, nahi beste sagardo edateaz gain, pintxoak jateko aukera ere egongo litzateke. Egu-



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta erailkina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14


Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77  
ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**Montis DQ Mouth**





nean zehar, iaz bezala, irrintzi lehiaketa egingo da eta baita txapel jaurtiketa ere. Era berean, antolatzailerak euskal jantziarekin joateko gonbidapena luzatzen die Sagardo Egunean parte hartuko dutenei. Euren iritziz ohitura

politza izan daiteke eta euskal giroarekin guztiz bat egiten du proposamenak. Izan ere, ezin da ahaztu Sagardo Eguna berriz ere bultzatu dutenen helburua: euskal giroa sortu eta, noski, Sagardo Egunaren ohitura berreskuratzea.

### Sariak Irabazteko txartela

Berrikuntza bezala, edalontzia erosten dutenen artean txartel bana banatuko da aurten. Bertan, antolaketan lagundu duten okindegi, harategi eta tabernen izenak agertzen dira eta

zozketa antzeko bat antolatuko da euren inguruan. Sagardo Egunean bertan txartel horretan agertzen diren taberna guztietara doazenen artean zozketa egin eta saria banatuko da. Halaber, txarteletan agertzen diren okindegi eta harategi guztietan Gazte Eguna baino lehenago kontsumituz gero, beste zozketa bat egingo da, "sari potoloagoarekin".

Modu horretan Sagardo Egunaren prestakuntza lagundu dutenei bueltan zerbaite eman nahi izan diete antolatzailerak. Euren biziki azpimarratzen dute antolatzailerak eta laguntzailerak guztien lana: Gazte Asanblada, Kaltxango AEK, Euskal Birusa eta boluntarioak. Lan handia egin dute denek aurretik eta orain disfrutatzeko momentua heldu da. Txotx egiteko momentua.

Ekhi Velar



**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

**T** XALAPARTA  
 ABERNA

Eta asteburuetan  
 pintxoak, afariak  
 eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK**  
**943 030 299**

**Enter**  
 INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
 Tel. 943 17 90 37  
 e-maila: enter-i@arrakis.es

# NORA MATEOS

- *Ikasle fina al zinen txikitan?*

Bueno ... ikasgai batzuetan bai, besteetan ez horrenbeste! Saiatu behintzat saiatzen nintzen.

- *Nondik datorkizu eskubaloia-  
rekiko zaletasuna?*

Aita motibaziorik handiena izan da, txikitan txantajea egiten zidan. Txantaje sana baina! Domeketan eskubaloian jolasten genuen parkean, eta amak arbitro lana egiten zuen-

- *Zer motatako txantajeaz ari zara?*

Gola sartzean 100 pezeta ematen zizkidan!

- *Martxa horretan urrezko egingo zinen...*

Ez! Gol gehiago sartzen hasi nintzenean ez nuen saririk lortzen eta!

- *Ezustekoren bat edo beste eman dizu zure zaletasunak?*

17 urterekin bizkarreko arazok izaten hasi nintzen eta utzi egin behar izan nuen. Gero bueltatu, Gasteizko talde batean jokatu, eta aurten berriz ere utzi dut.

- *Zein taldetan izan zara gustu-  
ren*

Errotabarri taldean, eta Gasteizkoan gustura ibili naiz. Jende berria eta jokatzeko beste modu bat ikusi nuen Gasteizen, baina nire taldea Ermuko da!

- *Zein partidua aipatuko zenuke?*

Kukullaga taldearen aurkako partidua batean zortzi penaltitik zortziak sartu nituen. Oso urte txarra izan zen niretzat belaua apurtu nuelako, eta horrek aurterra jarraitzeko indarra eman zidan.

- *Entrenatzaile zorrotza zara?*

Bai!



**Ana eta Juanjoren alaba bakarra da Nora Mateos Pascual. Eskubaloia du pasio, eta adinekoen azken arnasa gozotzea du maite. Ostegun eta ostiraleko tarte librean, zazpi hamalau urte bitarteko eskubaloi talde bi entrenatzen ematen du.**

- *Entrenatzen dituzun haurrek zuk nahi moduan baloratzen al dute eskubaloia?*

Asko baloratzen dute. Kontua da gehiago egin dezaketela, eta ez dute egiten.

- *Noiz egin zenuen lan aurrenekoz?*

Duela zazpi urte Drogetenituri banatzen hasi nintzen. Eta horri esker herriko kale guztiak dakizkit!

- *Zein da hartu duzun erabakirik zailena?*

Udaran Gorabiden lanean nengoela, amama hil eta Avilara joan behar izan nuen. Familiarekin geratu, edo bertatik

bueltatzea erabaki behar izan nuen. Azkenean familiaren ondoan...

- *Zer esango zenuke Gorabide taldearen gainean?*

Eurekin nagoenean, alderik pailazoena ateratzen didate. Aurten adibidez, Olentzeroz mozorrotu naiz (barre artean).

- *Zergatik sartu zinen gizarte langintza ikastera?*

Adinekoak laguntzeko modu aproposa delako.

- *Zer moduz praktikatzen?*

Lehenengo egunean orri zuria nintzela sentitzen nuen. Baina orain konturatzen naiz espero baino gehiago nekiela.

- *Etokizuna nola irudikatzen duzu?*

Adinekoen lotua.

- *Zein da irakurri duzun libururik finena?*

Isabel Allenderen Inés del alma mía, eta Luis Sepúlvedaren Un viejo que leía novelas de amor.

- *Denbora librean zer?*

Lagunekin egon, juergan irteten, poteoa egin, umeen partiduetara joan...

- *Biziorik bai?*

Lacasito txikiak.

- *Usain bat?*

Nire amaren usaina.

- *Kolore bat?*

Berdea.

- *Nora egingo zenuke ihes?*

Beste garai batera.

- *Maitemindurik al zaude?*

(Irribarre maltzurra) Nire bizitzarekin maitemindurik nago!

- *Zer bilatzen duzu pertsona batengan?*

Konfiantza, konplizitatea, errespetua...

- *Zerekin egiten duzu amets?*

Nire gurusoak nitaz harro egotearekin.

- *Izenik kuttunena?*

Lesuri.

- *Zerk eragiten dizu barregura?*

Edozer gauzak.

- *Erraz haserretzen zara?*

Bai, baina erraz pasatzen zait.

- *Zerbaiten falta du Ermuak?*

Ume eta gazteentzako leku itxi gehiago behar dira.

- *Zer irakatsi dizu bizitzak?*

Bizitza den modukoa onartzen, eta jendea laguntzen.

- *Berriz jaiotzekotan...?*

Oso gauza gutxi aldatuko nituzke.

Leire Elustondob

*Pub Dakota*

Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



# Kirola eta balioak Jigoro Kanoren begiradapean

Jigoro Kanoren koadroari agurra emanaz hasten dute entrenamendua Judo Sonkei taldeko gazteek. Jigoro Kano judoaren asmatzailea da. 1882an sortu zuen lehen judo eskola, 'Kodokan' (bidea azaltzeko tokia, japonieraz), eta milioika pertsonak praktikatzen dute japoniar arte moderno hau gaur egun. Ermuhan ere badira batzuk.

Adrian Riaño txikitatik ibili da judoan. Bere pasioa da. Urteak eman ditu kirol horretan eta, gaur egun, gerriko beltza darama eta 2. Dana da (defentsa pertsonalean ere gerriko beltza dauka eta 1. Dana da, eta Gorputz eta Kirol Ekintzen Goi Mailako Teknikaria ere bada). Han eta hemengo judo-eskoletan ibili izan da bere teknika garatzen eta hainbat sari lortu ditu Euskadi zein nazio mailako txapel-

ketetan. 2011an, gainera, Japoniara joan zen zenbait judo ikastaro egitera. Orain, ikasitakoa irakastea nahi du. Bere pasioa zabaldu.

Urtarrilean ireki zituen atea Judo Sonkeik. Irailean garatzen hasi zen proiektuak argia ikusi eta hainbat gazte erakarri zituen tatami gainera. Tatamia, judoa egiteko behar den zorua, Espainiako Judo Federazio Errealak onetsitakoa da, Judo Sonkein erabiltzen den material guztia bezala. "Judoa egiteko baldintzak ezin hobek dira hemen", dio Adrianen aitak, Adrianen kirol ibilbidean elementu garrantzitsua izan denak.

Gabezia bat bete nahian sortu du kluba Adrianek. Er-



muan ez dago judoa egiteko aukerarik, berak ondo daki hori, beste herri batzuetara joan behar izan baita judoan jardutera, eta Ermuko gazteei aukera hori eman nahi izan die. Gaur egun 9 ume eta 9 nagusi daude klubean, eta taldeka banatzen dira entrenamenduak egiteko. Gaztetxoek astearte eta ostegunetan 17.30etatik 18.30etara dituzte entrenamenduak eta, horien ostean, nagusiek hartzen dute txanda tatami gainean.

## Judoaren kode morala

Kirol moduan, judoak ari-keta fisiko hutsa baino gehiago eskaintzen die judo-kei. Judo Sonkein atea ireki bezain laster argi ikusten da hori, 'Judoaren kode morala' izeneko kartela eskegita baitago. "Edukazioa, ausardia, zintzotasuna, ohorea, autokontrola, apal-

tasuna, errespetua eta laguntasuna", dira kode horrek zehazten dituen termino eta balioak. Ume eta nagusiek kirola eginez ondo pasatzeko aitzakiarekin, balio horiek ikasteko aukera ere ematen du Judo Sonkeik. Gainera, psikomotrizitatea, indarra, abiadura, malgutasuna, koordinazioa, erreflexuak, kontzentrazioa, oreka, erresistentzia, nortasuna, konfiantza eta norberaren gorputzaren ezaguera garatzen du judoak.

Judo Sonkeiko kide izateko hilero 30 euroko kuota ordaindu behar da eta, izena eman nahi izanez gero, 688 64 70 26 (Adrian) telefonora idaztea edo klubera hurbiltzea (Aritzemendi pilotalekuan) nahikoa da. Bestetik, informazio gehiago lortzeko, klubak webgunea dauka martxan: [www.judostonkei.wix.com](http://www.judostonkei.wix.com).

Ekhi Velar



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

# Gazteak herriaren zimendu

(Bazkaltzeraaa!) Gaur ere asteburu guztietako errutina, oihu batez esnatu eta ajearen aztarnak oraindik nire gorputzean jarraitzen du. Mobila lurretik jaso eta ia eskuak izararen azpitik gizarteratu gabe, kodrilako WhatsApp-ak atzo egindakoa gogorarazten dit. Nola ez, nire buruak alkoholaren itsaso galduan jarraitzen du, atzoko oasis bat ere gogoratu barik. Mobila burukoaren gainean utzi eta hasperen sakon baten ondoren, buruko engranjeak pixkanaka abiadura hartuz doaz.

Zergatik betiko planera mugatu gertatuko dena zer den baldin badakit? Nola ez ba, beste aukerarik ez dago eta, agian beste biderik balego... Zenbat gustatuko litzaidaketen herriko gazteentzako gune bat, non gazteok elkarren ar-

tean ezagutu, ideiak elkartrukatu, sortu edota erabakitzeke aukera izango genukeen. Bertan, ekitaldi ezberdinak jorratu ahalko genituzke, kultura edota kirola sustatu, jakin-mina elikatuz asetu, aisialdirako esparru bihurtu eta festarako tokia ere egongo litzateke. Bai, hori da, pertsona bezala haziko nintzateke! Baina, argi dago, zaila dela inongo laguntzarik gabe horrelako helburu bat lortzea. Noski, desio anitzak izanda ere, horiek gauzatzeko azpiegiturak izatea ezinbestekoa da. Era horretan, horiek zimendu eta sostengu bihurtuko lirateke, hau da, edozein gailurren oinarritzko kanpamendua.

Gustatuko litzaidake jakitea udalak herriko gazteen etorkizunari begira duen pentsamendua! Haien esku



*Ermuko Gazte Asanblada*

egongo balitz... puuuuffa! Gu, Ermuko Gazte Asanblada bezala, sarri joan gara haiengana egoera hori salatu eta irtenbide ezberdinak emateko asmoz. Erantzunik ez, ordea. Isiltasuna izan da haien erantzun bakarra, erantzun posible guztien artean gehien gutxiesten gaituena. Baina uste al dute horrekin etsiko garela? Inolaz ere!” Inoiz baino indartsuago esnatu naiz, alkoholaren itsasoan uharte ederra aurkitu dut. Munduko bazkaririk goxoen izan da gaurkoa.

**Zergatik betiko planera mugatu gertatuko dena zer den baldin badakit? Nola ez ba, beste aukerarik ez dago eta**

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Enrailak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



**ETXEBIZITZA SALGAI**

Etxebizitza salgai, guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde berria, 5 horma-armairu, trasteroa, igogailua, argitsua (130 m erabilgarri edo 156 m eraikiak). Eibarko erdialdean. Deitu 626 20 38 38 edo 699 49 52 49 telefonora.



**Otsailaren 12an**  
Zorionak Mare zure 5. urtebetetzean! Asko maite zaitugu eta muxu handi bat jaso familiaren partez!



**Martxoaren 9an**  
Zorionak Oinatz! Ondo pasa zure urtebetetzean! Ama, aita eta familiaren partez!



**Otsailaren 17an**  
Mara, gure etxeko larrosatxo txikiak bi urte bete barri. Mosu, mosu eta mosu Ermukuon partez, pitxin!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:  
**MARTXOAREN 18a**



**Zorionak neskek!**  
Bizkaiko Atletismo Alebin Txapeldunak!

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**



optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOIA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA  
1942**

Argazki hau 1942 urtekoa da eta San Kristobalen aterata dago. Bertan agertzen dira Josel Luis Mugarza eta Julian Zelaieta

**ERMUA  
1965**

Otsailaren 26a zen. Herreroneko Fernando Izagirrek aterata, egunotan 50 urte egin ditu argazki honek. Plaza inguru horrela ezagutu zenutenoi gogorpen zirrargarriak ekarri baietz?

**PIEDAD LAUCIRICA URIBARRENA**

(2015eko otsailaren 22an)

*Piedi Euskal Biruseko kidearen ama*

**EUSKAL BIRUSEKO LAN TALDEA**





**Ermuko kaleetan hiru elementu berri ditugu otsailetik aurrera. Hiru komun publiko berri. Karabixa kalean, Errotabarri plazan eta San Pelaio parkean daude kokatuta. Bere erabilera doakoa da, baina baldintza batzuk bete behar dira: gehienez 15 minutu egotea barruan eta 10 urtetik beherakoek nagusiekin batera erabili beharko dituzte.**

**Zer iruditzen zaizu komun publikoen instalazioa? Beharrezkoak dira herrian?**



Ondo ikusten dut komun hauek egin izana, baina orain guri hauek zaintzea egokitzen zaigu. Horrela, bapateko edozein beharri- zan fisiologiko izanez gero, badaukagu nora joan. Oso garrantzitsua dela deritzot eta horrelako zerbaiten beharra ikusten nuen herrian.

**Abilio Alvarez, 78 urte**



Justu orain obra ikusten nenbilen eta ondo egina zegoela komentatzen. Komun publikoak egotea beharrezkoa dela iruditzen zait, edozein momentutan horren beharra izanez gero, nora joan badaukazulako. Bestela, etxera joan arte aguantatu edo taberna batera joan behar zara. Hobe horrela.

**Tomas Martinez, 72 urte**



Oso ondo iruditzen zait komun publikoak jartzea. Garrantzitsua da. Kalean bazaude, bestela, taberna batera joan behar zara, ez daukazu besterik. Gainera, herrian zehar ondo sakabatu dituztela iruditzen zait, jende gehiena kontzentrazen diren tokietan kokatuz.

**Rosa Garcia, 54 urte**



Ondo ikusten dut herriari gero eta zerbitzu gehiago eskaintzea. Egia esan ia ez naiz komun hauetan fijatu. Ez dut uste behar handia zegoenik. Umeentzat, agian, bai dela erabilgarria, baina nagusiek tabernetara joateko aukera daukagu.

**Amaia Dominguez, 36 urte**

### Tasio eta Sabino



**ZINEA**

**7tik 9ra**  
**14tik 16ra**  
**21etik 23ra**  
**28tik 30era**  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film eta ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 5**  
**Hilak 12**  
**Hilak 19**  
**Hilak 26**  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film.  
 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 1**  
**Hilak 8**  
**Hilak 15**  
**Hilak 22**  
**Hilak 29**  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film. 17:00etan.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 4ra arte:**  
 Txotxongiloen erakusketak: Gorakada taldearen 25.urteurrena.

**Hilaren 9tik 22ra:**  
 Argazkiak: Ermua Antzokia 2015. Oscar Blanco.

**Hilaren 23tik 29ra:**  
 Argazkiak: Itsadarraren bi aldeetako begirada txiki handiak.

**MUSIKA**

**Hilak 13:**  
 Rock kontzertua: Mukta + zehaztu gabeko taldea (Korrika Kulturala). 22:00etan. Eskailerapekon

**Hilak 14:**  
 Blues kontzertua: Adrian Costa Blues Band. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€

**Hilak 18:**  
 Rock kontzertua: Kokein (akustikoan) (Korrika kulturala). 22:00etan. Infreñu tabernan.

**Hilak 25:**  
 Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

**ANTZERKIA**

**Hilak 6:**  
 "Chochos, el musical", Esther Gimeno eta Marta de Castroren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

**Hilak 13:**  
 "Olivia y Eugenio", Concha Velascoren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€

**Hilak 28:**  
 "Konpota", Dxusturi Teatroaren eskutik (Korrika kulturala). 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 7:**  
 Haurrentzako ipuin kontaketa. 17:30ean. Udal Liburutegian.

**Hilak 27:**  
 Haurrentzako ikuskizuna: "Txo, Mikmak txikia", Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik. 17 eta 19etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 6€.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 2tik 8ra:**  
 Kazolatxoaren astea. Herriko tabernetan.

**Hilak 21:**  
 Sagardo eguna: hainbat ekitaldi. 11:00etatik. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilak 28:**  
 Korrika eguna: txokolate-jana, haurrentzako jolasak, erromeria... 15:15etatik. Orbe kardenalaren plazan.

Patxi López




**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**PRO**



- ARRAINDEGIA  
 - ITSASKIAK  
 - ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
 OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
 " 17 24 33 (etxea)  
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
 ERMUA

**Infreñu  
 Taberna**



Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)



Unibertsitatea,  
inguruko gizartearekin  
inplikatzea ere bada.

**erronkarako #prest**



**Katalin Madariaga,**  
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza, 3. maila.

**PREST**



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**DONOSTIALDEA · OTSAILAK 28**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI · MARTXOAK 14**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**OÑATI · MARTXOAK 14**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA · MARTXOAK 28**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA**

**ESKORATZA · MARTXOAK 7**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · MARTXOAK 7**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MARTXOAK 21**

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)





**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 Hertz Klinika - Clínica Dental  
**Leire Irazu Garitaonandia**  
 • Ortodontzia • Aho zirujia  
 • Periodontzia • Implanteak  
 • Odontologia orokorra  
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
 www.irale.com

**Yoga eskola**  
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak  
 Erlaxazioa eta meditazioa  
 Osteopatia eta bertebrologia  
 Anginak sendatzeko masajea  
  
**Sanatana Dharma**  
 San Roke 24, behea  
 943 74 85 93  
 685 722131 (Idoia)

**san pelayo**  
 clínica dental hertz klinika  
 Implanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hertz-zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS  
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
 - Aho eta inplante kirurgia  
 - Hortzetako protesiak  
 - Hertz estetika  
 - Ortodontzia  
 - Odontopediatria  
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea  
  
 Hertz klinika berritu eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**   
 Cristina García Pérez  
 Belar-denda eta dietetika  
 • Elikagai biologikoak  
 • Terapia naturalak  
 • Naturopatarekin kontsultak  
 • Masajeak  
 • Dietistarekin kontsultak  
 • Kosmetika biologikoa  
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**